



.../2019 Dekretua, ....(e)koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzkoa.

Gaur egun, indarrean dago Euskadiko Turismo Enpresen eta Establezimenduen Erregistroa arautzen duen irailaren 2ko 199/2003 Dekretua, zeinak Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea garatzen baitu.

Lege hura orain indarrean dagoen Legeak, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak, ordeztu zuen eta honen 24. artikulua Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroaren ezaugarriak zehazten ditu, eta agintzen du erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu bidez taxutu behar dela. Beraz, erregistroaren inguruko beste erregelazio bat eman behar da indarreko lege-xedapenetara egokitzeko.

Hain zuzen ere, legean aurreikusitako turismo-establezimenduen eta -enpresen tipologiara egokitu behar da edukia (enpreson artean nabarmentzen dira, berriak direlako, erabilera turistikoko etxebizitzak eta etxebizitzetako gelak), eta turismo-gidariei erregistroan inskribatzeko aukera eman behar zaie. Bestetik, gehiago zehaztu behar da inskripzio-prozedura nola bideratu, dela erantzukizunpeko adierazpenaren eta aurretiazko komunikazioaren bidez, dela administrazio-ebazpen jakin batzuen bidez, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak hala ezartzen duen kasuetan, bai jarduera hasten denean bai jarduera aldatzen denean bai jarduera eteten denean ere. Bukatzeko, erregistroa bestelako lege-aurreikuspen batzuen arabera ere egokitu beharko da; esate baterako, zehapen jakin batzuen inskripzioaren arabera.

Esandakoaren harira, Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroa erabat arautzea da dekretu honen helburua, hau da, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen edukiaren arabera arautzea.

Dekretuak 4 kapitulu ditu (17 artikulutan banatuta), bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Xedapen orokorrei buruzko 1. kapituluak jasotzen dira dekretuaren xedea, erregistroaren helburua, izaera juridikoa eta ezaugarriak, adskripzioa eta kudeaketa deszentralizatua; era berean, erregistroaren arduradunari eta osaera eta egiturari buruz hitz egiten da.

II. kapituluak turismo-enpresen inskripzioari buruzkoa da, eta bertan arautzen dira inskripzioen helburua eta edukia, inskripzioa egiteko bitartekoak, eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko izapidea.

III. kapituluak, bestalde, turismo-gidarien inskripzioa azaltzen da, eta zehazten da zein kasutan egingo den inskripzioa ofizioz eta interesdunak eskatuta, baita inskripzioak zer eduki izango dituen eta erregistroan baja nola emango den ere.

Azkenik, IV. kapituluak erregistroaren ondorioak eta publikotasuna arautzen ditu, eta erregistroko inskripzioaren zenbakiaz eta erregistroko informazioa eskuratzeaz eta argitaratzeaz ere hitz egiten du.

Lehenengo xedapen gehigarrian, adierazten da sexu-aldagaia sartuko dela dekretu hau aplikatzearen ondorioz sortzen diren dokumentu guztietan, bat etorritz

emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeriarekin; bigarren xedapen gehigarrian, berriz, azaltzen da gaur egun indarrean dagoen erregistroa zertan den arau berria indarrean sartu ostean; xedapen indargabetzaileak, bestalde, ezartzen du erregistroa erregulatzen zuen aurreko dekretua indarrrik gabe geldituko dela; azken xedapenetan lehenengoak, jarraian, turismo arloan eskumena duen sailaren titularrari baimena ematen dio erregistroaren egitura eta osaera aldatzeko; eta, azken xedapenetan bigarrenak, azkenik, dekretua indarrean noiz sartuko den adierazten du.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2019ko .....aren ...(e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

EBAZTEN DUT:

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### *1. artikulua.- Xedea.*

1.- Dekretu honen xedea da Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea.

2.- Erregistro horretan, Euskadiko turismo-enpresak eta turismo-gidari jarduten duten pertsonak inskribatzen dira, xedapen honetan adierazten denari jarraikiz.

### *2. artikulua.- Erregistroaren helburua.*

1.- Erregistroaren helburua da turismo-enpresa eta -jardueri buruzko informazioa ematea eskatzen duten pertsona guztiei.

2.- Era berean, erregistroa informazio-tresna izan daiteke turismo-administrazioak turismoaren antolamenduari eta arlo horretako indarreko araudia betetzen dela aztertu, kontrolatu eta egiaztatzeari dagokionez dituen eskumenak gauzatzeko, baita turismoa sustatzeko neurriak abiarazteko ere.

### *3. artikulua.- Erregistroaren izaera juridikoa eta ezaugarriak.*

1.- Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa administrazio-izaerakoa, publikoa eta doakoa da.

2.- Erregistroa bide telematiko eta elektronikoetatik kudeatuko da, eta bertako edukietara bide horietatik sartzeko aukera emango du.

### *4. artikulua.- Adskripzioa eta kudeaketa deszentralizatua.*

1.- Erregistroa turismoaren arloan eskumena duen zuzendaritzari adskribatuta egongo da.

2.- Erregistroa bakarra izango da; hori alde batera utzita, modu deszentralizatuan kudeatuko da, turismoaren arloan eskumena duen sailaren lurralde-ordezkaritzen edo -bulegoen bitartez.

### *5. artikulua.- Erregistroaren arduraduna.*

1.- Lurralde historiko bakoitzean, turismoaren arloan eskumena duen sailaren lurralde-bulegoaren arduraduna edo lurralde-ordezkaria arduratuko da erregistroaz.

2.- Erregistroaren arduradunak dagozkion inskripzioak egingo ditu, eskatzen diren ziurtagiriak emango ditu, eta erregistroko edukia jasota uzteko eta zabaltzeko gainerako izapideak egingo ditu, bat etorritz hala dekretu honetan nola aplikatzekoa den gainerako legerian jasotakoarekin.

*6. artikulua.- Erregistroaren osaera eta egitura.*

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroak dagozkion inskripzioak egingo ditu honako liburu hauetako batean eta, hala badagokio, bertako atal eta epigrafeetan:

a) I. liburua. Turismo-enpresak.

- 1. atala. Ostatu-establezimenduak.

1. epigrafea. Hotelak.
2. epigrafea. Ostatuak.
3. epigrafea. Apartamentu turistikoak.
4. epigrafea. Kanpinak.
5. epigrafea. Agroturismoak.
6. epigrafea. Landetxeak.
7. epigrafea. Aterpetxeak.
8. epigrafea. Beste ostatu-establezimendu batzuk.

- 2. atala. Etxebizitzetan ostatu hartzeko enpresak.

1. epigrafea. Erabilera turistikoko etxebizitzak.
2. epigrafea. Erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak.

- 3. atala. Bitartekaritzako turismo-enpresak.

1. epigrafea. Bidaia-agentziak.
2. epigrafea. Beste bitartekaritza-enpresa batzuk.

b) II. liburua. Turismo-gidariak.

## II. KAPITULUA TURISMO-ENPRESEN INSKRIPZIOA

*7. artikulua.- Inskripzioen xedea eta edukia.*

1.- Erregistroan inskribatuko da turismo-enpresen jardueraren hasiera, baita jarduera horren ezaugarriak ere, hurrengo puntuetan adierazten den moduan.

2.- Erregistroan, araudi espezifikoari jarraikiz turismo-enpresen jardueraren hasierari buruzko erantzukizunpeko adierazpenean jaso behar diren datuak ez ezik, gutxienez honako datu hauek jasoko dira:

a) Turismo-jardueraren titular den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazio-datuak, identifikazio fiskaleko zenbakia adierazita (eta, edukiz gero, baita izen komertziala ere).

b) Jarduera gauzatzen den establezimenduaren edo erakinaren posta-helbidea, hala badagokio.

c) Jardueraren titularrarekin zuzenean eta bizkor komunikatzeko modua emango duten telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta posta-helbidea.

d) Enpresaren turismo-sailkapena.

e) Ostatu emateko edukiera, ostatu-enpresen kasuan.

3.- Turismo-enpresen jardueraren hasieraz gain, haien aldaketak inskribatuko dira, erregistroan sartu diren datuei erreferentzia egiten badiete.

4.- Erregistroan jasoko dira, halaber, inskribatutako enpresei turismo arloko arau-hauste larriak eta oso larriak egiteagatik ezartzen zaizkien zehapen nagusiak eta osagarriak.

#### *8. artikulua.- Inskripzioak egiteko bitartekoak.*

1.- Erregistroko inskripzioak ofizioz egingo dira, honako dokumentu hauek aurkeztu edo eman ostean, dagokionaren arabera:

a) Jardueraren hasierari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

b) Jardueraren funtsezko aldaketei eta behin-behineko edo behin betiko etenaldiari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

c) Funtsezkoak ez diren jardueraren aldaketen alde aurreko komunikazioa.

d) Inskribatu den jardueraren sailkapena, edukiera edo beste elementuren bat aldarazten duen administrazio-ebazpen irmoa.

e) Turismo arloan arau-hauste larriak eta oso larriak egiteagatik zehapen nagusiak eta osagarriak ezartzeko administrazio-ebazpen irmoa.

f) Beste autonomia-erkidego batean legez ezarrita dauden bitartekaritza-enpresen establezimenduak ireki edo ixteari buruzko komunikazioa.

g) Europar Batasuneko estatu kide batean edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioarekin bat egin duen estatu batean legez ezarrita dauden bitartekaritza-enpresen establezimenduak ireki edo ixteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

2.- Aurreko a), b), c), f) eta g) ataletan adierazitako kasuetan, baldin eta beharrezko daturen bat falta dela ikusten bada edo eskatzen diren dokumentuak aurkeztu ez badira, hutsak zuzentzeko izapideari ekingo zaio, hurrengo artikuluari jarraituz.

#### *9. artikulua.- Hutsak zuzentzea.*

1.- Erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa behar bezala bete eta aurkezteak berehalako ondorio zuzena izango du: inskribatuta geratuko da Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.

2.- Interesdunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu adierazpen edo komunikazio horrekin batera:

a) Jarduera erregulatzen duen araudi espezifikoaren aplikatzearen ondorioz eskatzen direnak.

b) Nortasun-agiri nazionalaren edo dokumentu baliokide baten kopia, baldin eta interesdunak prozeduran berariaz erakusten badu ez dagoela ados administrazioak datu-bitartekaritzarako plataformaren bidez kontsultak egitearekin.

c) Espainiako lurraldean bizi ez diren atzerritarren kasuan, indarrean dagoen pasaportearen kopia.

d) Legezko edo borondatezko ordezkartzez jarduten dutenen kasuan, dagokion dokumentu publikoa edo pribatua, salbu eta delako pertsona erakunde-ziurtagiri elektronikoaren bidez identifikatzen bada edo ordezkarien erregistro elektronikoan alta emanda badago.

3.- Aurkeztutako dokumentua osatu gabe badago edo eskatzen den dokumentaziorik gabe aurkezten bada, erregistroaren arduradunak interesdunari eskatuko dio hutsa zuzen dezala edo dagokion dokumentua aurkez dezala hamar egun balioduneko epean.

4.- Eskaera betetzen bada, erregistroan inskripzioa egingo da, dokumentua jasotzen den edo hutsa zuzentzen den egunetik aurrerako ondorioekin.

5.- Bestela, erregistroaren arduradunak proposatuko du interesduna prozeduran atzera egindakotzat jotzea. Turismoaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak horri dagokionez ematen duen ebazpenaren aurka dagokion administrazio-errekurtsioa jarri ahal izango da.

#### *10. artikulua.- Inskripzioak ezereztea.*

1.- Turismo-enpresen inskripzioak ofizioz ezereztuko dira honako dokumentu hauek aurkeztu edo ematen direnean, dagokionaren arabera:

a) Jarduera borondatez eteteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

b) Beste autonomia-erkidego batean legez ezarrita dauden bitartekaritza-enpresen establezimenduak ixteari buruzko komunikazioa.

c) Lege-araubidea urratzeagatik edo inaktibitateagatik jarduera behin betiko etetea edo jarduera gauzaten den establezimendu eta lokalak ixtea xedatzen duen administrazio-ebazpen irmoa.

d) Jarduerari behin betiko baja ematea edo establezimendua behin betiko ixtea dakarten zehapenak ezartzea xedatzen duen administrazio-ebazpen irmoa.

2.- Zehapenak ezarri izanaren inskripzioa ezereztu egingo da interesdunak hala eskatzen badu, oharra hartu eta bi urte igarotzen direnean, betiere zehapena edo isunaren ordainketa bete badira.

Nolanahi ere, erregistroaren arduradunak ofizioz aginduko du inskripzioa ezerezteko, behin egiaztatzen denean aipatutako epe hori igaro dela eta ezarritako zehapenaren ondoriozko erantzukizunak bete direla.

### III. KAPITULUA TURISMO-GIDARIEN INSKRIPZIOA.

#### *11. artikulua.- Ofiziozko inskripzioa.*

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan ofizios inskribatuko dira turismo-gidariak, baldin eta Euskadiko kultur ondarearen elementu katalogatuen barruan jarduteko gaituta badaude Euskadiko turismo-administrazioaren eskutik.

*12. artikulua.- Interesdunek eskaturiko inskripzioa.*

1.- Erregistroan inskribatzeko eskaera egin ahal izango dute Espainiako Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan onartuta edo gaituta dauden turismo-gidariekin, horretarako adierazpen bat aurkeztuta.

2.- Adierazpen horrekin batera, dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Onarpenaren edo gaikuntzaren akreditazioa.

b) Nortasun-agiri nazionalaren edo dokumentu baliokide baten kopia, baldin eta interesdunak prozeduran berariaz erakusten badu ez dagoela ados administrazioak datu-bitartekaritzarako plataformaren bidez kontsultak egitearekin.

c) Espainiako lurraldean bizi ez diren atzerritarren kasuan, indarrean dagoen pasaportearen kopia.

d) Legezko edo borondatezko ordezkariak jarduten dutenen kasuan, dagokion dokumentu publikoa edo pribatua, salbu eta delako pertsona erakunde-ziurtagiri elektronikoaren bidez identifikatzen bada edo ordezkarien erregistro elektronikoan alta emanda badago.

3.- Aurkeztutako dokumentua osatu gabe badago edo eskatzen den dokumentaziorik gabe aurkezten bada, erregistroaren arduradunak interesdunari eskatuko dio hutsa zuzen dezala edo dagokion dokumentua aurkez dezala hamar egun balioduneko epean.

4.- Eskaera betetzen bada, erregistroan inskripzioa egingo da, dokumentua jasotzen den edo hutsa zuzentzen den egunetik aurrerako ondorioekin.

5.- Bestela, erregistroaren arduradunak proposatuko du interesduna prozeduran atzera egindakotzat jotzea. Turismoaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak horri dagokionez ematen duen ebazpenaren aurka dagokion administrazio-errekurtsoa jarri ahal izango da.

*13. artikulua.- Inskripzioaren edukia.*

Erregistroan, turismo-gidarien jarduna erregulatzen duen arauari jarraikiz jaso behar diren datuak ez ezik, gutxienez honako datu hauek jasoko dira:

a) Turismo-gidariaren identifikazio-datuak, identifikazio fiskaleko zenbakia adierazita (eta, edukiz gero, baita izen komertziala ere).

b) Turismo-gidariarekin zuzenean eta bizkor komunikatzeko modua emango duten telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta posta-helbidea, hala badagokio.

*14. artikulua.- Erregistroan baja ematea.*

Inskripzioa etengo da turismo-gidariak hala eskatzen duenean, bajari buruzko komunikazioaren bidez.

IV. KAPITULUA

## ERREGISTROAREN ONDORIOAK ETA PUBLIKOTASUNA

### *15. artikulua.- Inskripzioaren ondorioak.*

Erregistroko inskripzioak berekin ekarriko du emandako datuak argitaratzea (inskripzioa ez da eratzailera izango).

### *16. artikulua.- Erregistroko inskripzio-zenbakia.*

1.- Erregistroko inskripzioa identifikazio-zenbaki batekin egingo da, eta zenbaki hori inskribatu den jardueraren titularrari edo turismo-gidariari jakinaraziko zaio.

2.- Turismo-enpresek beren erregistroko inskripzio-zenbakia jasota utzi beharko dute erabiltzen dituzten publizitate-bitarteko guztietan, baita beren zerbitzuak sustatzeko edo kontratatzeko baliatzen dituzten eskaintza turistikoko euskarri eta kanaletan ere.

Era berean, erregistroko inskripzio-zenbakia agertuko da fakturretan edo enpresa horiek sortzen eta erabiltzen dituzten gainerako dokumentuetan.

### *17. artikulua.- Erregistroko informazioa eskuratzea eta argitaratzea.*

1.- Edonork eskuratu ahal izango du Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroak unean-unean aurkezten duen informazioa.

2.- Informazioa bitarteko elektronikoetatik eskuratuko da, doan, salbu eta interesdunak paperezko formatua erabiltzea berariaz eskatu ez badu.

3.- Erregistroaren arduradunak erregistroan jasota dauden egintzen gaineko ziurtagiria egingo du, interesdunak eskatuta, eta ziurtagiria egiten duenaren zirkunstantziak, lekua eta data adieraziko ditu, baita zertarako ematen den ere.

### *Lehenengo xedapen gehigarria.-*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 28ko 4/2005 Legearen 16. artikulua xedatutakoari jarraikiz, dekretu honetan ezarritakoa aplikatuz sortzen diren erantzukizunpeko adierazpenaren edo aurretiazko komunikazioaren ereduetan, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan egindako inskripzioetan eta datuak biltzeko beste dokumentu guztietan, sexu-aldagaia sartu beharko da, halako moldez non datuak bereizita jasotzeko eta ustiatzeko bidea izango baita.

### *Bigarren xedapen gehigarria.-*

Euskadiko Turismo Enpresen eta Establezimenduen Erregistroa arautzen duen irailaren 2ko 199/2003 Dekretuan jasotzen den gaur egungo erregistroa, aurrerantzean, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa deituko da. Bertan egiten diren inskripzio guztiak erabat eraginkorrak izango dira eta indarrean egongo dira; hala ere, dekretu honetan zehaztutako egitura eta osaerari egokitu beharko zaizkio.

### *Xedapen indargabetzailea.-*

Indargabetuta gelditzen dira Euskadiko Turismo Enpresen eta Establezimenduen Erregistroa arautzen duen irailaren 2ko 199/2003 Dekretua eta arau honetan ezarritakoaren kontrakoak diren xedapen guztiak.

### *Azken xedapenetatik lehena.-*

Turismo arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularrari baimena ematen zaio dekretu honetan arautzen den erregistroaren egitura eta osaera aldatzeko; horretarako, erregistroa osatzen duten liburuak, atalak eta azpiatalak ezabatu, azpizatitu edo izenez aldatu ahal izango ditu.

*Azken xedapenetatik bigarrena.-*

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, .....ko.....ren.....(e)an

Lehendakaria,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,

ALFREDO RETORTILLO PANIAGUA.



